

**MARIA BIRJINA DOHATSUA, JAINKOAREN AMA,
KRISTOREN ETA ELIZAREN MISTERIOAN**
(Vatikanoko II. Kontzilioaren
"Lumen gentium", 8. kapitulua)

I. SARRERA

[Maria Birjina guztiz santua Kristoren misterioan]

1. Jainko guztiz onbera eta jakintsuak, munduaren berreros-
tea burutu nahirik, *epea bete zenean, bere Semea bidali zuen,
emakumeagandik jaioa, ... guk seme-alabatzakoa bar genezan*
(Ga 4, 4-5). "Hura, gu gizakiongatik eta gu salbatzeko, jaitsi
zen zerutik eta Espiritu Santuaren egitez Maria Birjinagandik
gorputz harturik gizon egin zen"¹. Jainkozko salbamen-misterio
hau errebelatzen zaigu eta Jaunak bere Gorputz bezala sortu
zuen Elizan jarraitzen du. Han, fededunek, Kristo beren
Buruarekin elkaturik santu guztiekin batera, ohoratu behar
dute "lehenik Maria beti Birjina, Jesukristo gure Jainko eta
Jaunaren Ama"².

[Birjina guztiz santua eta Eliza]

2. Izan ere, Maria Birjina, Aingeruak iragarrita Jainkoaren
Hitza bere ariman eta gorputzean hartu eta munduari Bizia

¹ Symbolum Constantinopolitanum: MANSI 3, 566. Cf. CONC. EPH., ib. 4, 1130
(necnon ib. 2, 665 et 4, 1071); CONC. CHALC., ib. 7, 111-116; CONC.
CONSTANTINOP. II, ib. 9, 375-396; *Missale romanum*, e Credo.

² *Missale romanum*, e Canone.



eman ziona, Jainkoaren eta Berreroslearen benetako Amatzat aitortua eta ohoratua da. Bere Semearen irabaziak aurrez kontuan harturik, era bikainean berrerosia eta Berarekin lotura es-tu eta ezin hautsizkoaz elkartua, dohain eta duintasun honekin ederturik dago: Jainkoaren Semearen Ama da. Horregatik, Aitaren alaba kutuna da eta Espiritu Santuaren tenplua. Hain grazia harrigarri honi esker, zeruko eta lurreko sorkari guztien oso gainetik dago. Aldi berean, hala ere, salbatuak izango di-ren gizaki guztiekin elkarturik aurkitzen da Adamen ondoren-goengan. Areago oraindik: "Kristoren kideen egiazko ama da, bere maitasunez Elizan fededunak, Buru haren kideak, jaio zi-tezen esku hartu duelako"³. Horregatik Elizaren kide txit bi-kain eta berezitzat eta haren fede eta maitasunean tipo eta ere-du bikain-bikaintzat aldarrikatua da. Eliza katolikoak, Espiritu Santuak irakatsirik, seme-alaben sentimenduz, ama maitagarri-tzat ohoratzen du.

[Kontzilioaren asmoa]

3. Horregatik Kontzilio Santuak, Elizari buruzko irakatsia azaltzean, hor burutzen baitu Jainko Berrerosleak salbamena, arreta handiz azaldu nahi ditu bai Birjina Dohatsuaren egite-koa gizon egin zen Hitzaren eta Gorputz Mistikoaren misterio-an, eta baita berrerosiak direnen eginbeharrak ere Jainkoaren Ama, Kristoren Ama eta gizaki guztien eta bereziki fededunen Amarekiko. Hala ere, ez du Mariari buruzko doktrina osoa agertzeko asmorik, ezta teologoen ikerketek oraindik guztiz argitu ez dituzten gaiak erabakitzeke asmorik ere. Beraz bidez-ko izanez jarraitzen dute, Eliza santuan Kristoren ondoren go-rengo tokia eta era berean gugandik hurbilena⁴. duen hari bu-ruz, teologia katolikoaren eskoletan libreki eztabaidatzen diren iritziek.

³ S. AUGUSTINUS, *De S. Virginitate*, 6: PL 40, 399.

⁴ Cf. PAULUS VI, *Allocutio in Concilio*, die 4 dec. 1963: AAS 56 (1964) p. 37.

II. BIRJINA DOHATSUAREN EGI'ITEKOA SALBAMEN-HISTORIAN

[Mesiasen Ama Itun Zaharrean]

4. Itun Zahar eta Berriko liburuek eta Tradizio beneragarririk geroago eta argiago agertzen digute Salbatzailearen Amaren egitekoa salbamen-egintzan, begien aurrean jarriko baligute bezala. Hain zuzen ere, Itun Zaharreko liburuek salbamen-historia kontatzen digute: Kristoren mundura etortzea nola doan prestatuz urratsez urrats. Lehen dokumentu hauek, Elizan irakurtzen direnez eta geroko errebelazio osoaren argitan interpretatzen direnez, apurka-apurka geroago eta garbia-go argitzen digute emakumearen, Berreroslearen Amaren, irudia. Honen argitan, bekatuan eroritako lehen gurasoei eginiko agintzarian, sugearen aurkako garaipenaren agintzarian, agertzen da jadanik profezia gisa irudikaturik (cf. Has 3, 15). Era berean hura da Seme bat, Emanuel deituko dena, sabelean sortu eta argitara ekarriko duen birjina (cf. Is 7, 14; Mi 5, 2-3; Mt 1, 22-23). Hura gailentzen da Jaunaren pertsona apal eta behartsuen artean, Harengandik salbamena uste osoz itxaroten eta hartzen dutenen artean. Azkenik harekin, Siongo alaba goren harekin, betetzen da garaia eta hasten ekonomia berria, agintzariaren zain luzaro egon ondoren. Jainkoaren Semeak, bere gizatasun-misterioen bidez gizakia bekatutik askatu ahal izateko, Mariagandik giza izaera hartu zuenean gertatzen da hori.

[Maria, Jaunaren Gizakundearen Adierazpenean]

5. Baina Aita errukitsuak, gizakundea gertatu baino lehen, Ama izateko aurrez hautatua zenaren baietza nahi izan zuen; emakume bat heriotza ekartzeko lagungarri izan zenez, horrelaxe beste emakume bat bizitza ekartzeko ere lagungarri izan zedin. Hau Jesusen Amarengan betetzen da gorentasunik handienez, gauza guztiak eraberritzen dituen Bizitza bera mun-

duari eman ziolako, eta hain egiteko handiaren neurriko dohainez Jainkoak edertu zuelako. Horregatik ez da harritzekoa Eliz Gurasoen artean, Jainkoaren Amari, guztiz santua eta bekatu-orban orotatik garbia deitzeko joera, Espiritu Santuak moldatu eta berri-berri egindako sorkari gisa harturik⁵. Bere sortzearen lehen unetik santutasun-distira txit bereziaz edertua, Nazareteko Birjinari, Jainkoaren aginduz, *graziaz betea* (cf. Lk 1, 28) agur egiten dio Aingeru mandatariak. Eta hark honela erantzuten dio zerutik bidaliari: *Hona hemen Jaunaren mirabea, gerta bekit zuk esan bezala* (Lk 1, 38). Honela Maria, Adamen alaba, Jainkoaren hitzari baietza emanenez, Jesusen Ama bilakatu zen. Jainkoaren salbamen-nahia bihotz-bihotzez onartuz eta inolako bekatoren eragozpenik gabe, bere burua oso-osoan eman zion, Jaunaren mirabe bezala, bere Semeari eta honen egitekoari, berrerostearen misterioaren zerbitzuan jarritz, Haren mende eta Harekin, Jainko Ahalguztidunaren graziaz. Zuzen uste dute, bada, Eliz Gurasoek, Jainkoak ez zuela Maria bitarteko guztiz pasibo legez erabili, hark fede eta obedientzia libreaz gizakien salbamenean esku-hartu zuela baizik. Izan ere hura, San Ireneok dioenez, “esana eginez, bere buruarentzat eta gizadi osoarentzat salbamen-bide bilakatu zen”⁶. Horregatik antzinako hainbat Gurasok, beren predikuetan, gogoz baieztatzen dute harekin batera, “Evaren obedientziarik ezak egindako korapiloa, Mariaren obedientziak askatu zuela; Eva birjinak bere federik ezaz lotu zuena, Maria birjinak askatu zuela bere fedez”⁷; eta Evarekin parekatuz, “bizi direnen Ama”⁸ deitzen diote Mariari,

⁵ Cf. S. GERMANUS CONST., *Hom. in Annunt. Deiparae*: PG 98, 328^a; In Dorm. 2: 357. ANASTASIUS ANTIOCH., *Serm. 2 de Annunt.*, 2: PG 89, 137AB; *Serm. 3*, 2: 1388C. S. ANDREAS CRET., *Can. in B. V. Nat.*, 4: PG 97, 1321B. *In B. V. Nat.*, 1: 812^a. *Hom. in dorm.* 1: 1068C. S. SOPHRONIUS, *Or. 2 in Annunt.* 18: PG 87 (3), 3237BD.

⁶ S. IRENAEUS, *Adv. Haer.* III, 22, 4: PG 7, 959^a; HARVEY, 2, 123.

⁷ S. IRENAEUS, *Ibidem*; HARVEY, 2, 124.

⁸ S. EPIPHANIUS, *Haer.* 78, 18: PG 42, 728CD-729AB.

eta maizago oraindik “heriotza Evagandik etorri zela; bizitza, berriz, Mariagandik”⁹.

[Birjina guztiz Santua eta Jesus Haurra]

6. Amaren eta Semearen arteko batasuna, salbamen-egin-tzan, Kristoren sortze garbiaren unetik honen heriotza arte agertzen da. Lehenik, Maria arin-arin Isabel bisitatzera abiatu ondoren, honek dohatsu aldarrikatzen duenean agindutako salbamenean izan duen fedeagatik, Aitzindariak bere amaren sabelean pozez jauzi egiten duen bitartean (cf. Lk 1, 41-45). Jaiotzan ere agertzen da, Jainkoaren Amak, pozez beterik, artzainei eta magoei bere Lehen Semea aurkezten dienean; honek haren birjintasunezko osotasuna galdu ordez, sagaratu egiten du¹⁰. Tenpluan behartsuei zegokien eskaintza eginik, Jainkoari aurkeztu zionean eta Simeonen profezia entzun zuenean esanez, Semea eztabaida sortuko duen seinalea izango zela eta ezpata batek zulatuko zuela amaren arima, askoren asmo ezkutuak agerian gera zitezten (cf. Lk 2, 34-35). Jesus Haurra galdu eta honen gurasoek, nahigabez bila eta bila jardun ondoren, tenpluan aurkitu zuten bere Aitarekiko zereginei emana, eta haiek ez zuten ulertu Semearen erantzuna. Hala ere, haren Amak bere bihotzean gogoeta eginez hartzen zituen hauek guztiak (cf. Lk 2, 41-51).

[Birjina guztiz Santua Jesusen ageriko ministerioan]

7. Jesusen ageriko bizitzan era adierazgarrian agertzen da haren Ama hasiera-hasieratik, Galileako Kanako ezteietan, errukiak eraginik, Jesus Mesias mirariak egiten hastea lortu zuenean bere

⁹ S. HIERONYMUS, *Epist.* 22, 21: PL 22, 408. Cf. S. AGUSTINUS, *Serm.* 51, 2, 3: PL 38, 335; *Serm.* 232, 2: 1108. S. CYRILLUS HIEROS., *Catech.* 12, 15: PG 33, 741AB. S. IO. CHRYSOSTOMUS, *In Ps.* 44, 7: PG. 55, 193. S. IO. DAMASCENUS, *Hom. 2 in dorm. B. M. V.*, 3: PG 96, 728.

¹⁰ Cf. CONC. LAT. anni 649, can. 3: MANSI 10, 1151. S. LEO M., *Epist. ad Flav.*: PL 54, 759. CONC. CHALC.: MANSI 7, 462. S. AMBROSIUS, *De instit. virg.*: PL 16, 320.

erreguaz (cf. Jn 2, 1-11). Haren predikuetan barrena, bere Semeak Jainkoaren Erreinua haragi eta odolezko baldintza eta loturen gain ezarriz, Jainkoaren hitza entzuten eta gordetzen dutenak, berak zintzoki egiten zuenez (cf. Lk 2, 19 eta 51), dohatsu direlako hitzak jaso zituen (cf. Mk 3, 35; Lk 11, 27-28). Horrela aurrera egin zuen Birjina guztiz Santuak fede-bidean, eta Semearekiko bere batasunari zintzoki eutsi zion gurutzeraino. Han, Jainkoak hala nahita, zutik iraun zuen (cf. Jn 19, 25), bere Seme Bakarrarekin biziki sufrituz eta ama-bihotzez haren sakrifizioarekin bat eginez eta berberak sorturiko oparigaia erre-opari eskaintzeari maiteki baietza emanez. Eta, azkenik, Kristo Jesusek berak gurutzean hilzorian zela amatzat eman zion ikasleari hitz hauekin: *Emakume, horra hor zure semea* (cf. Jn 19, 26-27)¹¹.

[Birjina guztiz Santua Igokunde ondoren]

8. Jainkoak ez zuen nahi izan giza salbamenaren misterioa handikiro agertzerik, harik eta Kristok agindutako Espiritua bidali arte. Horregatik ikusten ditugu Apostoluak Mendekoste egunaren aurretik, *emakume batzuekin eta Jesusen Ama Maria eta haren anai-arrebekin, bihotz batez otoitzari emanak zirautea* (Eg 1, 14). Mariak Espirituaren dohaina ere eskatzen zuen bere otoitzetan, bera jadanik Gizakundearen Adierazpenean beraren gerizpean hartu zuena. Azkenik, Birjina Garbia, sortzezko inolako orbanen kutsugabe gordea¹², lurreko bizitza aroa bukatu ondoren, gorputz eta arimaz zeruko aintzara jaso izan zen¹³, eta Jaunak goretsia, diren guztien Erregina

¹¹ Cf. PIUS XII, Litt. Encycl. *Mystici Corporis*, 29 iun. 1843: AAS 35 (1943) pp. 247-248.

¹² Cf. PIUS IX, Bulla *Ineffabilis*, 8 dec. 1854: Acta Pii IX, 1, I, p. 616; Denz. 1641 (2803).

¹³ Cf. PIUS XII, Const. Apost. *Munificentissimus*, 1 nov. 1950: AAS 42 (1950); DENZ. 2333 (3903). Cf. S. IO. DAMASCENUS, *Enc. in dorm. Dei genetricis*, Hom. 2 et 3: PG 96, 721-761, speciatim 728B. S. GERMANUS CONSTANTINOP., *In S. Dei gen. dorm.*, Serm. 1: PG 98 (6), 340-348; Serm. 3: 361. S. MODESTUS HIER., *In dorm. SS. Deiparae*: PG 86 (2), 3277-3312.

gisa, jaunen Jaun (cf. Ap 19, 16) eta bekatuaren eta heriotzaren garaile¹⁴ den bere Semearen antzekoago egina izan zedin.

III. BIRJINA GUZTIZ SANTUA ETA ELIZA

[**Maria, Jaunaren mirabea, berreroste eta santutze zereginean**]

9. Bakarra da gure Bitartekoa, Apostoluak dioenez: *Izan ere, bakarra da Jainkoa eta bakarra Jainkoaren eta gizonemakumeen bitartekoa ere: Kristo Jesus gizona, bere burua guztien salbamenerako ordainsaritzat eman zuena* (1 Tm 2, 5-6). Hala ere, Mariak ama gisa duen egitekoak ez du inola ere iluntzen ezta gutxitzen ere Kristoren bitartekotza bakar hau, honen indarra erakutsi baizik. Izan ere, Birjina guztiz Santuak gizakien salbamenerako duen eragina ez dator berez hala izan beharretik, Jainkoak hala nahi izatetik baizik. Kristoren gainezkako irabazietatik jaiotzen da, haren bitartekotzan du oinarria, haren mende dago oso-osoa eta handik ateratzen du bere indar guztia. Ez du inola ere eragozten; bai, ordea, laguntzen fededunen Kristorekiko bat-egite zuzena.

[**Mariaren amatasun espirituala**]

10. Birjina guztiz Santua, betidanik Jainkoaren Ama izateko hautatua Hitzaren Gizakundearekin batera, Jainkoaren Probidentziak hala erabakirik, jainko-Berreroslearen Ama gurena izan zen, berebiziko lagun bihotz zabala guztien artean eta Jaunaren mirabe apala. Kristori bere erraietan sortzea emanez, bizia emanez, Hura haziz, Aitari tenpluan aurkeztuz, bere Semea gurutzean hilzorian zegoela Harekin batera sufrituz, berdingabeko eran lagundu zuen Salbatzailearen obran, obedientzia, fedeaz, itxaropenaz eta maitasun kartsuaz, arimen

¹⁴ Cf. PIUS XII, Litt. Encycl. *Ad coeli Reginam*, 11 octi 1954: AAS 46 (1954) pp. 633-636; DENZ. 3913 ss. Cf. S. ANDREAS CRET., *Hom. 3 in dorm. SS. Deiparae*: PG 97, 1089-1109. S. IO. DAMASCENUS, *De fide orth.*, IV, 14: PG 94, 1153-1161.

naturaz gaindiko bizitza berriztatu ahal izateko. Horregatik dugu geure ama, graziaren aldetik.

[Maria, Bitartekoa]

11. Mariaren amatasun honek graziaren ekonomian etengabe dirau, Gizakundearen Adierazpenean leialki eman zuen baiezkotik hasita, gurutzearen oinetan baiezko horri zalantzarik gabe eutsiz, hautatu guztien betetasun oso eta betikoa iritsi arte. Izan ere, zeruetara jasoan izan ondoren, ez zuen alde batera utzi salbamen-egiteko hau, bestera baizik: bere askotariko bitartekotzaz betiko salbamen-dohainak guretzat erdietsiz darrai¹⁵. Bere ama-maitasunez, arduraz zaintzen ditu, oraindik bidez doazen eta arrisku eta nahigabe artean bizi diren bere Semearen anai-arrebak, aberri zoriontsura eramanak izan daitezten arte. Hori dela eta deitzen zaio Elizan Birjina Dohatsuari, Abokatu, Laguntzaile, Esku-emaile, Bitarteko izenez¹⁶. Hau, hala ere, Kristo Bitarteko bakarraren duintasun eta eraginari ezer kentzen eta ezer gehitzen¹⁷ ez dion moduan ulertu behar da.

Izan ere, inongo sorkaririk ezin daiteke gizon egindako Hitzaren eta Berrerroslearen gradu berean jarri; baina Kristoren apaizgoan bai ministro sakratuek eta bai kristau-herriak era ezberdinean esku hartzen dutenez, eta Jainkoaren onberatasuna sorkariengana hainbat eratara banatzen denez, horrelaxe Berrerroslearen bitartekotza bakarrak ere ez ditu galarazten;

¹⁵ Cf. KLEUTGEN, textus reformatus *De mysterio Verbi incarnati*, cap. IV: MANSI 53, 290. Cf. S. ANDREAS CRET., *In nat. Mariae*, Sermo 4: PG 97, 865^a. S. GERMANUS CONSTANTINOP., *In annunt. Deiparae*: PG 98, 321BC. *In dorm. Deiparae*, III: 361D. S. IO DAMASCENUS, *In dorm. B. V. Mariae*, Hom. 1, 8: PG 96, 712BC-713A.

¹⁶ Cf. LEO XIII, Litt. Encycl. *Audiutricem populi*, 5 sept. 1895: ASS 15 (1895-96) p. 303. S. PIUS X, Litt. Encycl. *Ad diem illum*, 2 febr. 1904: Acta I, p. 154; DENZ. 1978 a (3370). PIUS XI, Litt. Encycl. *Miserentissimus*, 8 maii 1928: AAS 20 (1928) p. 178. PIUS XII, *Nuntius Radioph.*, 13 maii 1946: AAS 38 (1946) p. 266.

¹⁷ Cf. S. AMBROSIUS, *Epist.* 63: PL 16, 1218.

bai, ordea, eragiten sorkariengan askotariko lankidetzak, sorburu bakarretik parte hartuz.

Elizak ez du zalantzarik Mariaren bigarren mailako egiteko hau aitortzean; etengabe somatzen du bere bizitzan eta fededunen debozioari gomendatzen dio, ama-babes honetan oinarriturik, Bitarteko eta Salbatzailearekin estuago bat egin dezaten.

[**Maria Birjina eta Ama, Elizaren irudi**]

12. Birjina dohatsua, bere Seme Berreroslearekin elkar-tzen duen jainko-amatasunaren dohain eta egitekoagatik, eta bere grazia eta egiteko berdingabeengatik, Elizarekin ere estu-estu bat eginik dago. San Ambrosiok jadanik irakasten zuenez, Jainkoaren Ama Elizaren irudi da, fede, maitasun eta Kristorekiko batasun¹⁸ osoaren aldetik begiraturik. Izan ere Elizaren misterioan, arrazoiz ama eta birjina deitua hau ere, Maria Birjina Dohatsua aurretik doa, modu aparteko eta berdingabean bai birjinaren eta bai amaren¹⁹ eredu agerturik. Sinetsiz eta esana eginez sortu zuen lurrean Aitaren Semea bera eta, gainera, gizona ezagutu gabe, Espiritu Santuaren itzalpean, Eva berri bezala, inolako duda-mudarik gabe Jainkoaren mezuari eta ez antzinako sugeari fede emanik. Semea izan zuen, Jainkoak senide askoren artean lehen seme ezarri zuena (cf. Erm 8, 29), hau da, fededunen artean lehen semea, hauen jaiotzan eta hezieran ama-maitasunez lagunduz.

[**Birjinaren eta Elizaren emankortasuna**]

13. Eliza ere, haren santutasun ezkutua begiraturik eta haren maitasuna imitatuz eta Aitaren nahia leialki betez, ama bihurtzen

¹⁸ Cf. S. AMBROSIUS, *Expos. Luc.* II, 7: PL 15, 1555.

¹⁹ Cf. Ps.-PETRUS DAM., *Serm.* 63; PL 144, 861AB. GODEFRIDUS A S. VICTORE, *In nat. B. M.*, Ms. Paris, Mazarine, 1002, fol. 109r. GERHOLDIUS REICH., *De gloria et honore filii hominis*, 10: PL 194, 1105AB.

da zintzoki onartutako Jainkoaren hitzaren bidez, Berri Ona zabaltzeaz eta bataioaz bizitza berri eta hilezkorrera ekartzen baititu Espiritu Santuaren egitez sortutako eta Jainkoagandik jaiotako seme-alabak. Eta hura ere birjina da, Senarrari agindutako fedea osorik eta garbi gordetzen baitu, eta bere Jaunaren Ama imitatuz, Espiritu Santuaren indarrez, birjina gisa fede osoa gordetzen du, itxaropen sendoa eta maitasun egiazkoa²⁰.

[Elizak imitatu behar dituen Mariaren bertuteak]

14. Eliza perfekziora heldu da jadanik Birjina Dohatsuagan, orban eta zimurrik gabe (cf. Ef 5, 27). Fededunak, ordea, bekatuaren aurka ahaleginetan ari dira oraindik, santutasunean aurrera egiteko. Horregatik, bertute guztien eredu gisa hautatuen elkarre osoaren aurrean diz-diz dagien Mariaganantz zuzentzen dituzte begiak. Eliza, hartaz maiteki gogoeta eginez eta gizon egindako Hitzaren argitan hari begiratuz, itzal handiz, barnerago sartzen da gizakundearen misterio handian eta egunetik egunera bere Senarraren antzekoago bilakatuz doa. Maria, bada, salbamen-historian sakonki sartu da eta nolabait beragan ditu eta agertzen ditu fedearen eskakizunik gorenak. Predikuetan eta gurtzan goretsia denean, fededunak bere Semeaganantz erakartzen ditu, honen sakrifiziorantz eta Aitaren maitasunerantz. Horrela, Eliza, Kristoren aintza bilatuz, bere Eredu gorenaren antzekoago bihurtzen da, fedean, itxaropenean eta maitasunean etengabe aurrera eginez eta gauza guztietan Jainkoaren nahia bilatuz eta hari men eginez. Horregatik, bere apostolutzan ere, Elizak arrazoiz begiratzen dio Espiritu Santuagandik sortua eta Birjinagandik jaioa den Kristori bizia eman zion hari, Elizaren bitartez fededunen bihotzetan ere jaio eta hazi dadin. Birjina hau, gizakiak bizitza berri batera sortzeko apostolu-lanean ari direnek izan beharreko, maitasun amatiarraren eredu da.

²⁰ Cf. S. AMBROSIIUS, *Expos. Luc.* II, 7 et X, 24-25: PL 15, 1555 et 1810. S. AUGUSTINUS, *In Io.*, Tr. 13, 12: PL 35, 1499. Cf. *Serm.* 191, 2, 3: PL 38, 1010; etc. Cf. etiam Ven. BEIDA, *In Ic. Expos.* I, cap. 2: PL 92, 330. ISAAC DE STELLA, *Serm.* 51: PL 194, 1863A.

IV. BIRJINA DOHATSUAREN GURTZA ELIZAN

[Gurtza honen izaera eta oinarria]

15. Maria, Jainkoaren graziaz bere Semearen ondoren aingeru guztien eta gizaki guztien gainetik goratua, Kristoren misterioetan esku hartu zuen Jainkoaren Ama guztiz santua izan zelako, arrazoiz ohoratzen du Elizak gurtza bereziaz. Eta, izan ere, antzina-antzinatik Birjina Guztiz Santua “Jainkoaren Ama” izenaz goretsia izan da, eta haren babespera jotzen dute erre-guka fededunek beren arrisku eta beharretan²¹. Horregatik, batez ere Efesoko Kontzilioaz gero, Jainkoaren Herriaren Mariaganako gurtzak gora egin du miragarriri benerezio eta maitasunean, otoitz eta imitazioan, haren profeta-hitzetan esaten denez: *Dohatsu deituko naute gaurdanik gizaldi guztiek, handiak egin baitizkit Abalguztidunak* (Lk 1, 48-49). Gurtza honek, Elizan beti izan den eran guztiz apartekoa izan arren, ez du bere izaeraz inolako zerikusirik gizon egindako Hitzari, eta era berean Aitari eta Espiritu Santuari eman ohi zaien jainko-gurtzarekin, baina honetarako ezin hobeki laguntzen du. Izan ere Elizak, doktrina on eta zuzenaren barruan, garai eta lekuen arabera, fededunen aiurri eta izaeraren arabera onartutako Mariaren deboziozko era ezberdinek, Ama goresten duten aldi berean, Semea ere –honengatik baitira gauza guztiak (cf. Kol 1, 15-16) eta honengan *nabi izan baitzuen Aita Betikoak izaeraren betea egotea* (Kol 1, 19)– behar denez ezagutu, maitatu, goretsi eta honen aginduak betetzera eragiten dute.

[Predikuen eta gurtzaren zentzua]

16. Batzar Santuak beren-beregi irakasten du doktrina katoliko hau. Era berean, Elizaren seme-alaba guztiei bihotz ematen die Birjina Guztiz Santuaren gurtza, batez ere liturgikoa, zintzoki eragin dezaten. Estimatu handitan izan bitzate mende-

²¹ Cf. *Breviarium romanum*, ant. “Sub tuum praesidium”, ex I I Vesperis Officii Parvi Beatae Mariae Virginis.

tan zehar eliz Maisutzak aholkatu dituen Mariaren deboziozko praktikak eta jarduerak, eta zorrozki bete Kristoren, Andre Mariaren eta santuen²² irudien gurtzaz lehengo garaietan emandako dekretuak. Teologo eta Jainkoaren hitzaren predikariei ere arduraz eskatzen die, bazter ditzatela²³ bai gezurrezko gehiegikeria oro, bai bihotz-hertsikeria handiegia ere, Jainkoaren Amaren duintasunari dagokionean. Eliz Maisutzaren gidaritzapean Eskritura Santua, Eliz Gurasoak eta Irakasleak eta Elizaren liturgiak azterturik, azal bitzate zuzen Birjina Guztiz Santuaren egitekoak eta pribilegioak, betiere Kristori begira, hura baita egia, santutasun eta debozio ororen iturri. Esaera eta hitzetan bazter bezate senide aldenduak nahiz beste edozein pertsona Elizaren doktrina zuzenetik okerrera eramán ditzakeen oro. Gogora bezate azkenik fededunek, benetako debozioa ez datzala sentimendu iragankor eta fruitu gabea, ezta sineskortasun hutsalean ere. Oso bestera da: benetako debozioa, Jainkoaren Amaren handitasuna aitortzera eta, seme-alaba garenez gero, geure Ama maitatzera eta haren bertuteak imitatzera garamatzan egiazko fedetik dator.

V. MARIA, ITXAROPEN ZIURRAREN ETA POZAREN EZAUGARRI
BIDEZ DOAN JAINKOAREN HERRIARENTZAT

[Jainkoaren Herriaren aurretik doa bere argiaz]

17. Bien bitartean, Jesusen Ama, zeruetan gorputz eta arimaz goretsia izanik, geroko bizitzan bere betera iritsiko den Elizaren irudi eta hasiera denez, era berean lurrean Jainkoaren Herri erromesaren aurretik doa bere argiaz, itxaropen ziurraren eta pozaren seinale, Jaunaren eguna iritsi arte (cf. 2 P 3, 10).

²² Cf. CONC. NIC. II, anno 787: MANSI 13, 378-379; DENZ. 302 (600-601). CONC. TRID., Sess. 25: MANSI 33, 171-172.

²³ Cf. PIUS XII, Nuntius radioph., 24 oct. 1954: AAS 46 (1954) p. 679. Litt. Encycl. *Ad caeli Regiam*, 11 oct. 1954: AAS 46 (1954) p. 637.

[Herri bakarria osatzea lor diezagula]

18. Batzar Santu honentzat oso pozgarri eta kontsolagarri da, senide aldenduen artean ere, Jaunaren eta Salbatzailearen Amari dagokion gorespina ematen diotenak izatea, batez ere Ekialdekoen artean, Jainkoaren Ama beti Birjinaren gurtzari jorran kartsuz eta debozioz beterik emanak baitira²⁴. Fededun guztiek egin biezaizkiote erregu biziak Jainkoaren eta gizakien Amari, Elizaren hasieran honi bere otoitzez lagundu zionez, orain ere zeruan dohatsu eta aingeru guztien gainetik goretsia izanik, gure alde egin dezan santu guztiekin batera bere Semearen aurrean, herrietako familia guztiak, bai kristau-izenaren ohorea dutenak eta bai oraindik beren Salbatzailea ezagutzen ez dutenak, zorionean, bakcan eta harmonian biltzea lor dezaten Jainkoaren Herri bakarrean, Hirutasun Guztiz Santu eta banaezinaren aintzarako.

Konstituzio dogmatiko honetan ezartzen diren gauza guztiek eta bakoitzak Kontzilio Santuko Gurasoen oniritzia izan dute. Eta Guk, Kristorengandik jaso dugun ahalmen apostolikoaz, Guraso Agurgarriekin batera, onartzen, dekretatzen eta ezartzen dugu guztia Espiritu Santuagan eta agintzen dugu, batzarrean hala erabaki izan dena, promulgatua izan dadila Jainkoaren aintzarako.

Erroman, San Pedrorenean, 1964ko azaroaren 21ean.

Nik, Paulok, Eliza Katolikoaren Apezpikuak.

(Itzultzaile: Luis Baraiazarra)

²⁴ Cf. Pius XI, Litt. Encycl. *Ecclesiam Dei*, 12 nov. 1923: AAS 15 (1923) p. 581. Pius XII, Litt. Encycl. *Fulgens corona*, 8 sept. 1953: AAS 45 (1953) pp. 590-591.